

**1213 – ¿Qué puede aportar la mediación lingüística a mis clases de euskera?
(Zer ekar diezaieke bitartekotza linguistikoa nire euskara-eskolei?)**

Adolfo Sánchez Cuadrado – Universidad de Granada

Bitartekotzari buruzko sarrera-ikastaro hau euskara irakasteko eta ebaluatzeko prozesuetan komunikazio-modu hori txertatzeko aukerak aztertu nahi dituzten euskara-irakasleei eta arduradun akademikoek zuzenduta dago. Ikastaroak, analisia egin eta praktikan jartzeko aukera emango du, eta, era berean, prozesu hori modu eraginkorrean, autonomoan eta irakaskuntza-testuingurura egokituta garatu ahal izateko oinarriak finkatu eta beharrezko tresnak eskaini nahi ditu.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburu orokorra

Bitartekotzaren kontzeptua aztertzea bigarren hizkuntzak/atzerriko hizkuntzak irakasteko eta ikasteko esparruan, Europako Kontseiluak EEMBaren *Volumen complementario* liburu osagarrian (2020, 2021eko gaztelaniazko itzulpen ofiziala) proposatutako aurrerapen berrien argitan, eta berrikuntza horien erabilerak aztertzea helduen euskara-eskoletako curriculumean eta ebaluazio-prozesuetan.

Helburu operatiboak

1. Bigarren hizkuntzak/atzerriko hizkuntzak irakasteko bitartekotzaren kontzeptua aztertzea, European proposatutako azken aurrerapen metodologikoak kontuan hartuta.
2. Bitartekotza-motak ezagutzea (linguistikoa, kognitiboa, harremanetakoa eta komunikatiboa), baita bere aplikazioa ere bigarren hizkuntzak/atzerriko hizkuntzak erabiltzeko eta ikasteko esparruan.
3. Hizkuntzak irakasteko bitartekotzaren ikasketa- eta ebaluazio-jarduerak aztertzea.

Edukiak

1. Bitartekotza komunikazio-modu gisa kontzeptualizatzea.
2. Hizkuntza-ikasgelarako bitartekotza-jardueren tipologia.
3. Bitartekotzaren ebaluazioan parte hartzen duten alderdi nagusiak.

Bibliografia

Council of Europe (2020), CEFR Companion Volume. Servicio de publicaciones del Consejo de Europa: Estrasburgo. Traducción oficial al español (2021) disponible en: https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/marco_complementario/

Sánchez Cuadrado, A. (2022), «El concepto de mediación aplicado a la enseñanza de lenguas», en A. Sánchez Cuadrado (coord.), Mediación en el aprendizaje de lenguas. Estrategias y recursos. Madrid: Anaya. Págs.: 11-39. Disponible en línea en: https://issuu.com/grupoanayasa/docs/mediacion_capitulo1